

Aretxabaleta,  
1994eko abenduak 29

# Aretxagazeta



**Gabonak, itxaropenez  
betetako egunak**

• *Akordeoi  
kontzertua*

• *Diploma  
banaketa*

• *Olentzero*

• *Kirolez-Kirol  
saioa*



3. Boteprontoan  
**Nola baloratuko zenuke 1994 urtea?**
4. Hamabostean behin  
**Berri-zahar egunean giro ona.**
5. Hamabostean behin  
**Eduardo Altube- Pedro Zubizarreta.**
6. Hamabostean behin  
**Usadio zaharrak berrezkuratzen.**
7. Hamabostean behin  
**Maltzaga-Urbina maketa.**
- 10-11. Erreportaia  
**LEIZARRA Musika Eskola.**
14. Besteak beste
15. Kontu zaharrak
18. Boteprontoan  
**Iñaki Iturri.**
19. Apuntetako eta Aretxazoka

## Gabon mezua

Olentzerokin heldu zitzaigun gabon jaien oihartzuna, erregaluez, bankete handiz bete da gabon eguna. Handi-nahietik, handikeria dihoa gure jarduna... ez dakit ez al dugun ahaztu zer den ospatzen duguna.

Gabonak pasa eta urtea ere joan da ihesi pasatu behar izan ditugun arren mila gozo-gazi, orain atzera begiratzeak ez du gehiegi merezi... Urte zaharra ondo bukatu ta berria hobe hasi.


*Saioa Arando*

### Aretxagazeta

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila  
**Zuzendaria:** Inaxio Garro, **Erredakzio-kontseilua:** Nati Abasolo, Marta Madinabeitia, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Alberto Garro. **Kolaboratzaileak:** Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi K.E, Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94.



## Nola baloratuko zenuke 1994ko urtea?



**Joseba Gonzalez**  
(Langilea)

Estatu mailan gertatu dena lotsagarria da. Dagoen korrupzio maila kezkarria da. Munduari erreparua eginez, penagarria da dauden gerrate eta miseria guztiak. Atxabaltan bereziki gauzak nahiko ondo joan direla uste dut.



**Puri Altube**  
(Merkataria)

Orokorrean gauzak nahiko gaizki joan direla uste dut. Aurtentzen, agintariak euren poltsikora eramaten duten diru guztiaz konturatzeko aukera izan dugu. Lan aldetik, gazteen etorkizuna nahiko beltza ikusten dut.



**Lorenzo Rio**  
(Langilea)

Hilerokoa lortzeko egunero-egunero lan egiten ibili eta beste batzuk gure kontu bizitzen direla ikusteak nazkatzen nau. Bestela, herri mailan gauzak ondo daude, herria garbi dago eta gauzak egiten ari dira.

---

## KARTAK

## Mila esker atxabaltarroi

Atxabaltar maitagarriok:

ARETXAGAZETA hamabostero kalean ikustea posible egiten dugunok aukera hau URTE BERRI ON, PAKETSUA ETA ALAIA opatzeko aprobetxatzen dugu.

Okerrak eta gaizki ulertuak barkatzea eskatzen dizuegu, badugu zer ikasi eta.

Hurrengo urtean ere notizia eta, batez ere, berrikuntzez beterik izango gaituzue.

Bien bitartean, ondo segi.

# URTE BERRI ON ATXABALTAR GUZTIOI

*ARETXAGAZETA KULTUR ELKARTEA*





## Akordeolari gazteen kontzertua

Abenduak 23an Atxabaltako Akordeoi Orkestra Txikiak kontzertu bikaina eskaini zuen, musikaren etorkizuna salbu dagoela erakutsiz.

Gazte hauek itxura bat eman nahi izan zioten Gabonei, eta lor-tu zutela esan behar da.

Jende asko bildu zen Atxabaltako Parrokian eta egin zuten txaloen arabera, oso gustora egon zirela esan daiteke.

Kontzertua hiru zatitan banatu zen: lehenik 10 eta 12 urtekoek izan zuten euren aukera eta gero nagusiagoek izan zuten txanda.

Bukatzeke, denok batera jo zuten kontzertuari amaiera emateko.

Hona hemen orkestrako partaideak: Aiora Filarmendi, Lore Salaberria, Ianire Davila, Oihana Arejolaleiba, Naiara Ramos, Nagore Agirre, Idoia Zilaurren, Uxue Zamalloa, Larraitz Antxia, Merixell Armentia, Nerea Arrese, Amaia Idigoras, Ekaitz Oihanguren, Irati Urzelai, Izaskun Gabilondo, Jone Lezeta, Lorea Lasagabaster, Ibon Elordui, Arantzazu Aretaleanibeaskoa, Mirari Arando, Aitziber Kintanilla, Alexander Herranz.

## Berri-zahar egunean giro ona

Abenduak 17an, zapatarua, Atxabaltan Berri-Zahar eguna ospatu zen. Berri-Zahar Taldea izan zen ekintza honen antolatzailea. Egun hau, betiko euskaldunak eta euskaldun berriak elkar ezagutzeko antolatzen da. Arratsaldeko 5etan kuadrila arteko jolasak egon ziren (sokatira, zapiaren jokua...). Gero, 7,30etan, poteo herrikoia egon zen, eguna animatzen joateko, eta 9etan afaria. Afari honetan parte hartzeko, bakoitzak bere afaria etxetik prestatua eraman zuen eta Berri-Zahar taldeak, ura eta ardoa jarri zituen nahi beste. Afari ostean, Josu (bergatarra) eta Jokin (antzuolatarra) trikitilarien eskutik jaialdia egon zen eta jendea oso animatua ibili zela esan beharrekoa da. Dantza mordoia egin ondoren, bakoitzak ahal bezala bukatu zuen gaua, eta nahiz eta batzuk erromeria bukatzerakoan formal-formal etxera joan, beste batzuk jaialdia luzatzea erabaki zuten.

**ANGELINES**  
Autozerbitzua




Mitarte, 16 ☎ 79 61 42

**"HERRASTI"**  
AKEITA ETXEA



Aralar kalea, 7  
Tfnoa: 79 32 83



**IBARRA**  
ESTANKOA

Tabakoa eta  
ikasmateria

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77





Bikotea harro finalean gertatutako bakailauren aurrean

Egun berezi hauetan, jana eta edana ez da falta gure etxeetan. Zihur aski, bakailaua gehienok jan duguna izan da. Baina bakailaua nola gertatu behar den jakiteko, onena Eduardo Altube eta Pedro Zubizarretarengana joatea izango da. Jubilatut mailan, gure eskualdeko Bakailau Txapelketa irabazi ondoren, Donostian izan ziren finalean. Azkenean, Tolosa-aldekoak irabazi zuten txapelketa, baina txalotzekoa da gure ordezkarien lana.

Horra, horra, gure Olentzero, pipa ortzian dula ... Egun hau berezia da guztiontzat, bereziki umeentzat. Egun honetan, gogokoan duten oparia eskatzen diote, eta nahiz eta batzuk ikatza merezi, gehienek euren ametsa egi bihurtuta ikusten dute. Beraz, egun honetan Olentzerok lan mordoa izango zuen eta hurrengo urterarte jai hartuko du. Argazkian ikusi daitekeenez, Olentzero oso maitatua da umeen aldetik.



## ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 32 34

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE**  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN KONPONKETA

Otalora kalea, 4  
Eliza aurrean  
Tfnoa: 77 13 57





## Oñati Ostalaritza Eskolako Diploma banaketa

Aurreko abenduak 19an, astelehena, Oñati Goimailako Ostalaritza Eskolak lehenengo Diplomak banatu zituen bertako ikasleen artean.

Unai Bengoa atabaltarrak izan zuen diploma hau lehenengo aldiz jasotzeko ohorea, eta bere ostean, beste atxabaltar bat jarraitu zitzaion, Iruñe Camuesco hain zuzen.

Oñati Goimailako Ostalaritza Eskola 1991ko irailean sortu zen Arrasateko J.M. Arizmendiarreta Eskola Politeknikoaren babespean, ostalaritza eta zerbitzuen munduko irakaskuntza eskeintzeko asmoarekin.

Ostalaritza Eskolaren helburua, ostalaritza, turismo eta ospitaleen arloetan teknikari eta profesionalak prestatzea da.

Gerora begira, Eskola honek epe luzeragora Ospitale eta Hote-

lerako Gestio Diplomatura ezarri nahi du.

Diploma banaketa Oñatiko Udaleko Aretoan egin zen eta ikusmin handia sortu zuen ekintza honek. Ostalaritza munduan aspaldidanik dabilztenek ere ez zuten ekintza hau galdu nahi izan.

Ekintza hau, Ignacio Lakunza (Eskola Politeknikoko Zuzendaria), Angel Iturbe (Oñatiko Alkatea), Eli Galdos (Diputatu Nagusia), Itziar Monjelos (Ostalaritza Eskolako Zuzendaria) eta Alberto Elorzak (Ostalaritza Taldearen Ordezkarria) burutu zuten.

Ekintzaren ostean, luntx bat egon zen, bertako ikasleek egindako pintxoekin, eta bertan euren trebezia erakusteko aukera izan zuten. Luntx honetan ikasle, irakasle eta gurasoak egon ziren eta Diploma banaketan baino giro lasaiagoa egon zen.

Atxabaltako gazte batzuk, usadio zaharrak berrezkuratu nahaiean dabilzate. Horretarako, Gabon egunean goizeko 8,30etan irteera bat antolatu zuten baserri-baserri Ganon Kantak abesteko. Arientza-Korueta-Azatza-Larrino izan zen egin zuten ibilaldia. Abestutako base-rietan arraultzak, txorizua eta dirua bildu zuten. Bildutako arraultza eta txorizuekin hamarretakoa egin zuten Matikuan. Bildutako dirua Atxabaltako Talde Antimilitaristari eman zioten, hasi berri den taldea delako. Hurrengo urtean, gauzak hobetu nahi dira eta musika tresnak eramateko asmoa dago. Gerora begira, egun horretan biltzen den dirua talderen bati emango zaio. Zein talderi emango zaion aurrez aldetik esango da eta baita diru horrek izango duen misioa.

**T  
X  
I  
L  
A  
R  
R  
A**



**ELIKADURA  
BEREZIA**

Durana, 35  
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 79 44 28

**ARETXABALETA**





Atxabaltari dagokionez, autopistak izango lukeen eragina

**Azpaldidanik Maltzaga-Urbina autopistak iskanbila ugari sortzen ari da.** Dena dela, Arrasaten izugarritzko erakusketak prestatu dute autopista honen abantailak adierazi nahian. Erantzuna ere azkar eman dute autopista honen aurka daudenek eta erakusketaren aldamenean pankarta ugari ikus daiteke autopista honen aurka. Autopista honen gauza onak eta txarrak dituela garbi dago, baina nor esan dezake zerk duen pisu handiagoa?

**Atxabaltako alde-zaharrean badago makina bat etxe dotore.** Baina bere garaian dotoreak izandakoak eta orain hondatu samar daudenak ere badaude. Horietako bat Durana kaleko 15 zenbakikoa da. Bere garaian sagardotegi ere izandakoa, gaur egun jausteko zorian dago. Horrelakorik gerta ez dadin, Udala oinarritzko konponketak egiten ari da. Hasiera batean, auzokideen segurtasunerako dira konponketak lan hauek.





**AITZIBER NIÑO**

Lezama Merkatal Zentrua  
Tlfnoa: 79 13 32

**ITURGINTZA**

J.J

Tfnoa: 79 07 34  
79 31 87

*JOSU*

*URDAITEGIA*

Mitarte, 1



# Santamasak 94ko ferixa



Denborak ez zuen asko lagundu baina jende asko ibili zen Arrasateko ferixan. Jendeaz aparte, ezinezkoa zen Arrasateko Santamas ferixan txarria faltatzea. Duen itxura ikusi eta gero, nahiko bizimodu lasaia eraman duela garbi dago. Orain arte jan eta lo besterik ez du egin, baina laster bereak egin ditu. Txarri honekin ateratako buzkan-tza, txorizo eta urdaiazpikoekin, epe luze baterako gosea kentzeko aukera izango du norbaitek.

Egin zuen eguraldia ikusiz gero, ezin zen taloa probatu gabe geratu. Horrela, taloa zegoen postu guztietan izugarritzko jendetza biltzen zen eta nahiko denbora itxaron behar zen taloa dastatzeko. Taloarekin batera, ardoa edo sagardoa ere oso ondo sartzen zen eta horrela, bukaeran, bazkal-tzera nahiko alai joaten den egun horietakoa izaten da ferixa eguna. Argazkian, taloa nola egiten duten ikus daiteke.



## GUREA

TABERNA  
JATETXEA

*Durana Kalea*  
*Ifnoa: 79 20 64*



**MAPFRE**

Aseguroak

*Errekararren, 3*  
*Ifnoa: 77 11 76*

## MATIKUA

### Taberna

**Azatza auzoa**

**79 16 68**

**ARETXABALETA**





Joseba Aranak saritutako ogia erakusten digu

Sari asko banatu ziren Arrasateko ferixan. Horietako bat, Bedoña auzoko Urkimendi baserrira joan zen. Lehenengo saria irabazi zuten aurkeztutako ogiagatik. Lehenengo izateak ematen duen ospeaz gain, 15.000 pza. ere poltsikoratu zituzten. Aspalditik egiten dute ogia baserri honetan, lehenago amak eta orain semeak. Badirudi eskua ondo hartu diola eta bere lanaren saria jaso du dagoeneko.

Beste saritu bat ere izan genuen Arrasateko ferixan. Mitarte Garai baserrikoek, hain zuzen, lehenengo saria eraman zuten aurkeztutako gaztarengatik. Eman zieten plakaz gain, 22.000 pza. ere eraman zuten. Beste ferixa askotan ere sari mordoxka bat irabazi dute dagoeneko. Beraz, garbi dago aurreko ogiarekin, gazta honekin eta ardo on batekin, izugarrizko hamarretakoa egin daitekeela urrutira joan barik. Zorionak bie!



Bixente Pagoaga irabazle irten zen gaztarekin



**URBALTZ  
TABERNA**

Mitarte 21, behea  
Tlfnoa. 79 79 79  
ARETXABALETA



**IZOTZ  
TABERNA**

Mitarte, 16  
☎ 79 73 65



# LEIZARRA Musika Eskola

1991ko irailaren 16an sortu zen Leizarra Musika Eskola zentru ofizial bezala. Orditik, lan asko egin du musikaren alde, eta alde zurririk ezarritako helburuak betetzen ari da poliki-poliki. Dagoeneko, Atxabaltan badugu lan horren fruitua eta gaur egun Atxabaltako Banda entzuteko aukera dugu. Dena dela, bide luzea gelditzen da eta lan handia egiteko beharra dago oraindik.



Leizarra Musika Eskolari buruz gehiago sakontzeko, Jose Luis Ingidua (Lehendakaria) eta Angel Barandiaranekin (Zuzendaria) egon gara.

## • Ze helburu zenituzten Musika Eskola sortu zenean?

Atxabaltan, musika arloan zerbaiten falta nabaria zen, beraz proiektu hau martxan jartzea erabaki genuen. Hasiera batean, lehenagotik ematen ziren ikastaroekin jarraitu genuen, hau da; solfeo, akordeoia, saxofoia, kitarra, klarineta, pianoa eta kantu-korala.

Hauetaz gain, gai berriak emateko erronka hartu genuen: eskolaurre heziketa musikala, balleta eta Atxabaltako Udal Bandaren osaketa.

Banda sortzeak, era berean, beste musika tresnen ikastaroak ematera behartu gintuen: tronpetak, tronboia, bajua, fliskornoa,

bonbardinoa, flauta eta tronpa.

## • Urte hauek pasa eta gero, bete dituzue helburu hauek?

Gehienekoan baietz uste dugu. Dena dela, gauzak ezin dira egun batetik bestera egin, eta Atxabaltan, orain dela urte batzuetako musikaren egoeraz konparatuz, hobekuntza handia egon dela uste dut.

## Musika, eta bereziki balleta, oso komenigarria da umearen garapenerako espezialisten ustetan

Genituen helburuetatik, Atxabaltako Udal Banda osatu dugu, Eskolaurre Heziketa Musikari buruz momentu honetan ari gara buru belarri eta Balletak hasiera oso ona izan ondoren, orain baju samar dabil. Balletari buruz zera dugu esateko, espezialisten ahotik, oso ona dela umearen gara-

pen armonikoarentzat eta, orokorrean, gorputzaren garapenarentzat.

Lehenago aipatutako musika tresnen ikastaroak oso ondo doaz orainarte, tronpa eta bajua ez ezik. Gure ustez, jendeak bildurra dio bajuari, oso handia delako eta soinuak ateratzeko indar handia egin behar dela dirudielako, baina ez da horrela eta musika tresna hau jotzen ikasteko animatzen ditugu gazteak.

## • Urte hauetan zehar, beste beharrik aurkitu duzue Atxabaltan?

Egia esan, bai. Orain arte aipatutako helburuetatik aparte, gaur egun beste proiektu batzuk ere gehitu diegu Musika Eskolari: perkusioa, txistua, trikitixa eta dantza hain zuzen.

Horrela, lagun askorekin lanean ari gara eta hau erantzunkizun handia da guretzat.



## • Musika tresna guztiak kontutan hartuz, zein da jendearentzat gogokoena?

Dударik gabe akordeoia. Orain dela urte batzuk, jende gehienak akordeoi ikastaroetan ematen zuen izena, baina orain, gauzak aldatu egin dira eta beste musika tresnak aukeratzen hasi da jendea.

Gure ustez, Atxabaltako Bandak mesede handia egin die beste musika tresnei, eta orain, gazteek beste aukera batzuk ikusten dituzte, akordeoiaren nagusitasuna apurtuz.

## • Nolakoa da atxabaltarren jarrera musikaren aurrean?

Informazio aldetik, jendeak ez du Musika Eskolak egiten duen lanaren berri. Gure ustez, musika oso gehigarri interesgarria izan daiteke umearen hezkuntza barruan.

Lehenago aipatu dugu balleta oso egokia izan daitekeela umearen garapenerako, baina gaur egun, balleta neskak egiten duten zerbaitekin erlazionatua dago.

Dena dela, atxabaltarren laguntza ezinbestekoa dugu gure helburu guztiak betetzeko.

## • Atxabaltako Bandari buruz, kanpotar asko dagoela esan da...

Guri ere gustatuko litzaiguke guztiak atxabaltarrak izatea, baina momentuz ezinezkoa da hau lortzea.

Gaur egun, taldea 26 lagunek osatzen dute. Hauetatik, 14 atxabaltarrak direla kontuan hartu behar dugu. Beste bi, Arrasate-

koak dira, Musika Eskolako irakasleak, eta euren laguntza ezinbestekoa dugu. Beste guztiak, Azepeitia eta Eskoriatzakoak dira, azken honetakoak gehienbat, eta euren laguntza eskertzekoa da.

Poliki-poliki, Musika Eskolatik ikasleak irtetzen hasiko dira eta berehala Bandako partaideak izango dira, baina hau ezin da egun batetik bestera lortu.

---

## Atxabaltako Banda atxabaltarrez bakarrik osatzea da gure ametsa, baina horretarako gazteen aldetik erantzun hobea lortu behar da

---

## • Ze egoeratan aurkitzen da musika irakaskuntza gizartean?

Eusko Gobernuaren aldetik berrikuntza garrantzitsu baten aurrean aurkitzen gara. Orain arte egindako guztiak ez du ezertarako balio, sistema guztia aldatu bait da.

Asmoa, Musika Eskolen irakaskuntza lau mailatan bana-

tzea da:

1. maila: 4tik 6 urtera bitartekoak. Oinarrizko hezkuntza izango da.

2. maila: Bi kurtso osatuko dute: Hasierakoa.

Derrigorrezkoa.

3. maila: Akademiako Erdi Mailaren parekoa.

4. maila: Akademiako Gohi Mailaren parekoa.

Adina lehenengo mailan bakarrik hartzen da kontuan, beste mailetara pasatzea bakoitzaren gaitasunen arabera izango da.

## • Zeintzuk dira zuen diru-iturriak?

Udalak lokala eta musika tresnak eskaintzen dizkigu. Bestalderetik, Foru Aldundiak urtero dirulaguntza finkoak ematen ditu, musika eskola guztien artean banatzeko, baina orain musika eskola gehiago daudenez, aurtun 700.000 pzt. gutxiago lortu ditugu.

Beste diru guztia bazkide eta ikasleen kuoten bitartez lortzen dugu.





**GOGOKOEN DUZUN PAISAIA AURKITZEN  
LAGUNTZEN DIZUGU**



**ARRASATE KIROLAK, KIROL ALPINOETAN BEREIZTEN  
DEN DENDA**

Ondo jaztea eta gainera eroso  
joatea gustatzen bazaizu...



Zugandik hurbil eta  
harrituko zaituen prezioekin



**San Andresen, autobus geltoki ondoan**  
Araba Etorbidea, 18. Tfnoa: 77 14 86 ARRASATE





## Kirolez-Kirol saioa Atxabaltan

Askotan ikusi izan dugu Kirolez-Kirol saioa E.T.B.n Asier Aranguren atxabaltarraren eskutik. Kurtzebarri eskolakoek ez dute gutxiago nahi izan eta abenduak 19an, astelehena, antzeko saio bat prestatu zuten.

E.T.B.k eskaintzen duen saioaren antzekotasun haundiagoa izateko, Asier Aranguren bera izan genuen saioa zuzentzen, eta Atxabaltako lau izarrek eta Eskoriatzako beste izar batek lagundu zioten. Kurtzebarri eskolako 6., 7. eta 8. mailako neska-mutilek osatu zuten publikoa.

Hauek izan ziren parte hartu zuten kirolariak:

- Joseba Larrinaga: 26 urte-tako atxabaltarra. Elbarritu mailan 2. izan zen Berlinen izandako Munduko Korrikan.
- Igor Arenaza: 20 urtetako atxabaltarra. Iaz Bilbo Athletik-en aritu ondoren, aurten Eibar Futbol Taldean jokatzeko du.
- Kamila Jauregi: 16 urtetako atxabaltarra. Eski-akuatikoan Espainako Txapelketan 2. postua lortu zuen.
- Jasone Diaz de Guereñu: 27 urtetako eskoriatzarra. Donostiako

Corteblando Eskubaloitza Taldean atezain lanetan aritzen da. Bartzelonako Olinpiadetan ere parte hartu zuen.

- Asier Guenetxea: 24 urte-tako atxabaltarra. Aurreko urtean Artiach taldean aritu ondoren, aurten Euskadiko Txirrindulari Taldean fitxatu du.

Hasiera batean, Asier Aranguren ekarpena bakoitzari bere kirolean lortutakoari buruz galdera batzuk egin zizkien.


Bost kirolarietako buruz gehiago jakin ondoren, "iragarkie" eman zitzaion txanda. "Iragarkien" ondoren, Kurtzebarri eskolako neska-mutilek izan zuten galderak egiteko aukera. Mota guztietako galderak egin zizkionten gure "izarrei"; norbaitek, egun horretan bazkaldutakoa ere jakin nahi izan zuen, eta bakoitzaren erantzunaren ostean, bak bak izan ziren garaile.

Ordu bete inguru luzatu zen saio bitxi hau, eta ondoren, neska-mutilak zoratu egin ziren euren idoloetako argazkiak ateratzen eta autografoak eskatzen.

Neskek, gehienbat Igor Arenaza aukeratu zuten argazkiak ateratzeko orduan. Beharbada norbaiti loa ere kenduko zion...



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria

ZARAIA  
TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik  
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA ANAIK



# Olentzeroren erregaluak eta sariak



J.J. Aretxaga

Gabonetako kontuekin hasiko naiz gaurkoan. Samurrenetik. **Olentzerok**, bärrez, ez zuen hain samur euki. Erdiko kalerako bidea zerrauta topatu zuen, farmazia parean automobil bi zeuden aparkatuta eta gurdiak ez zeukan handik pasatzerik. Azkenean desbiazioa hartu beharra euki zuen. Urtean behin etorriko gure Olentzero eta...Aurten gainera karta berezia jaso du Olentzerok, herriko intsumisoek bialdutakoa. Pentsatu dezakezue zer eskatzen zuten, ezta? Eta Olentzeroren gainean besterik ze esan daiteke? Ba, **Iker Iglesiasi** galdetuko diot.

Gabonak batzuei tristeak pentsetan zaie (plazako arbola ikustea besterik ez dago), baina jai egunak direla esaten dutenak ere badira. Erregaluak banatzen dira eta sariak be bai. **Unai Loidik**, AEDk urtero antolatzen duen lehiaketa irabazi du, diapositiba sailean. **Fran Miguelek**, barrez, Gipuzkoako Xake Txapelketa irabazi du. Euskadi eta Espainiako txapelketetan ere parte hartuko du, ea handik zer ekarten digun. Animo!

UDAk antolatutako pelota txapelketa joan zen zapatuan bukatu zen. Neska-mutil askok parte hartu zuten, bueno, mutil askok eta neska bakarrak. Benjaminetan, C taldean, honeik izan ziren parte hartzaileak: **Jon**

**Altube, Martin Antxia, Eñaut Kortabarria, Axier Galiano, Gorka Uribe-etxebarria** (txapelduna) eta **Unai Bengoa**. B taldean: **Andoni Altube, Oihana Mata, Kepa Ibabe, Aritz Kortabarria** (txapelduna), **Lartaun Iturbe** eta **Mikel Iturri**. Eta C taldean: **Aritz Igartua** eta **Aitor Bolinaga**. Alebinetan **Mata-Iturbe** (finalistak) eta **Akaitz-Jonas** bikoteek parte hartu zuten. Eta infantiletan **Eraña-Alzola, Atxa-Bengoa, Arando-Arieta** eta **Apraiz-Uriarte** (finalistak) bikoteak; irabazleak **Josu Lasagabaster** atxalbatarra eta **Iñarra** bergararra izan ziren.

Eta erregalu musikalak be jaso ditugu. Abenduaren 23an herriko Akordeoi Orkestra Txikiaren aurkezpena egin zen. Lehenengo Akordeoi Orkestra Txikiak jo zuen **Luis Mari Elkorobarrutiaren** zuzendaritzapean eta gero haundiek jo zuten, **Juan Jose Orobengoaren** zuzendaritzapean. Bukatzeko irakasle bien ikasleek bat eginda jo zuten. Kontzertua ederra izan zen. Gauza haundia da herriko berrogeitaka neska-mutilek osatutako orkestra entzun ahal izatea. Horreik bai artistak.

Futbol-zelaia bukatuta ikustea erregalu polita izango litzateke. Orain beste hiru aste itxoin beharko dugula esan dute. Kautxozko kapa finegia dela, Alemanian ez dakit zertzu prueba egin behar dituztela...zenbat kontu eta biheleku! Ea oraingoa...

Eta akabetako, etxeko kontuak. Aretxagazetako kazetariak, **Alberto Garrok**, utzi egingo gaitu. Nora doan ez dizuet esango, baina pista batzuk emango dizkizuet. Beste aldizkari batera doa, publizista eta komertzial lanak egitera. Aldizkari hori hau baino haundiagoa da, urrin barik dago eta atxalbatarrez beteta.





**S**anta Zezilia eguna, azaroak 22, pasa berri dugu. Dakizuenez, musikariek eta muzikazaleek euren zaindariaren eguna ospatzen dute.

Orain dela 38 urte, 1956. urtean, hain zuzen ere, Santa Zezilia Meza ondoren eta hamarretakoa jan aurretik, koruko abeslari gazteek futbol partidua jokatu zuten Ibarra Futbol Zelaian; tipleak kontraltoen aurka.

Argazkiak, horregatik bakarrik, merezi du hemen agertzea, baina beste kasualitate bat ere bertan suertatu zen. Argazki hau zuri-beltzez atera eta zuek horrela ikusiarren, argazkilariak koloreztatu egin zuen. Jakin izan dugunez, Aretxabaletan koloreztatu zen lehenengo argazkia da.

Argazkilaria, nola ez, Ladis izan zen, eta bertan agertzen direnak honako hauek dira:

Goian, ezkerretik hasita: Jesus Errasti, Felix Garai, Juan M. Iturbe, Santi Zubizarreta eta Jose Ignazio Bengoa.

Behean, ezkerretik hasita: Luis Etxebarriarteun, Jabier Zubizarreta, Jose Ramon Arenaza, Jabier Urreta, Nikasio Unanue, Juan Antonio Rodriguez eta Roberto Urreta.



Josuk, 21 urte. Anak, 19.



Duten adinarekin,  
bidaia egiten dute.  
Topera gozaten dute.  
Dantza egiten dute.  
Proiektuak dituzte.  
Presarik gabe bizi dira.  
Egunean egunekoa  
bizi dute.  
Aurreztu eta gastatu  
egiten dute.

57 eta 55 urte dituzten  
Fermin eta Mirenek  
bezalaxe.

55 urtetik gora baduzu eta gehien atsegin duzuna egin nahi baduzu, orain finantza-zerbitzu eskusibo bat dago behar izan ahal duzun guztirako.

**Euskadiko Kutxaren Super 55 Libreta.**

Interes handia:  
Hasteko, interes handia.  
%5\*eraino U.T.B., gastu eta komisiorik gabe. Eta likidazioa sei hilero.

Pribilegio eskusiboak:  
Interes berezia izateak gauza handia badirudi, besterik gabe Super 55 Libreta bat irekitzek bestelako pribilegio eskusiboetarako atek zabalduko dizkizu:

- Deskontuak mailegu, bidaia eta automobil-aseguruetan.
  - Bidaia eta oparien eskaintza eskusiboak eperako aurrezkian.
  - Etxe Asistentziarako zerbitzua doan, etxeko konponketak egiteko.
  - Lehenasuneko interesa eperako aurrezkian.
  - ServiRed Visa txartela doan.
  - Promozio, opari eta atentzio bereziak.
- Zuretzat bakar-bakarrik.  
55 urtetik gora izateagatik.

Kontsultatzeko Zerbitzu Telefonikoa:  
Bestelakorik ere badago. Kontsultatzeko Zerbitzu Telefoniko bat izango duzu erabat doan. Interesa dakizukeenari buruzko informazioa eta aholkua jaso nahi baduzu, 900 555 900 telefonora hotsegitea baino ez duzu: Aisialdia eta dibertsioa. Heziketa-ikastaroak. Gai legal, fiskal, laboral eta finantzarioak. Gizarte-eta osasun- asistentzia. Etxebizitza, pentsioak... Dei bakar batek egunean-egunekoa ezagutaraziko dizu.

55 urtetik gora eta Euskadiko Kutxaren Super 55 Libreta baduzu, gehien atsegin duzuna egingo duzu.

Informa zaituzte 900 555 900 telefonora deituta edo Euskadiko Kutxaren edozein sukurtsaletara joanda.




\*100.000 pta.ko gutxienezko saldotik aurrera, lehen 100.000 pta.k %0,10ean.  
UTBari buruzko adibideak:  
250.000 pta.rako %3,11.  
1.000.000 pta.rako %4,61.  
5.000.000 pta.rako %5,01.

Super 55 Libreta

**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA



**Urtean zehar ARETXAGAZETAKO bazkidea izateak poztasun handiak ekarri ditu. Urtea ondo amaitzeko izugarrizko bi otar zozketatu ditugu. Hona hemen irabazleak:**




Juan Jose Etxebarriak, ARETXAGAZETAKO bazkide izateagatik, aurten ganbonak ondo pasatzeko aukera izango du.

Arantzazu Uribe-Etxebarria. Honek ere zorte berdina izan du, eta ARETXAGAZETA Olentzeroz jantzita joan zaio.



**Hurrengo urtean, zu izan zaitezke horrelako sarien irabazlea. Anima zaitetz. Egin zaitetz ARETXAGAZETAKO bazkide.**





**Izena:** Iñaki Iturri  
**Ofizioa:** Langilea  
**Afizioa:** Futbola  
**Misioa:** Euskadi aske ikustea

**1.- Nolakoa izan da zuretzat amaitzen ari den urte hau?**

- Bi etapa izan ditu. Bata gartzelan eta bestea etxean. Bigarren honekin gelditzen naiz.

**2.-Zenbat urte pasa izan dituzu Gabonak etxetik kanpo?**

- Bost urte. Gehiegi dira.

**3.-Nola bizi dituzu aurtengo Gabonak?**

- Oso pozgarri da familia eta lagunekin egotea. Baina gehien poztzen nauena, nire seme-alabak pozik ikustea da.

**4.- Gogorra egin zitzaizun egun hauek gartzelan pasatzea?**

- Oso gogorra. Dena dela,

egun hauetan jendeak eskutitz gehiago bidaltzen ditu eta honek zerbait laguntzen du.

**5.- Gabonetan, gartzelan zerbait berezia egiten da?**

- Janaria pixka bat hobea da, baina ez gehiegi. Bestela ez da ezer berezirik egiten.

**6.-Norbait faltan bota duzu?**

- Barruan gelditu ziren lagunak. Horrenbeste urte elkarrekin egon eta gero, euren adiskidetasuna botatzen dut faltan.

**7.- Zer eskatu diozu Olenizerori?**

- Kartera bat, eta ekarri didanez pozik nago.

**8- Gabonetako janaririk gogokoena?**

- Angulak, baina oso gares-

tiak daudenez gulakin konformatu behar.

**9- Eta edadirik gogokoena?**

- Whisky-a

**10.- Gabon Zahar egunean parranda botatzeko prest?**

- Bueltatxo bat emateko gogo badut, baina jadanik zahartuta nagoela uste dut eta ez dakit asko iraungo dudan.

**11.- Olentzero bazina, zer ekarriko zenioke munduari?**

-Munduari ez dakit, baina Euskal Herriari independentzia ekarriko nioke.

**12.- Nori opa diozu Urte Berri On bat?**

- Kepa Urrari eta bere egoeran dauden guztiei. Ea hurrengo urtean Gabonak elkarrekin pasatzen ditugun.



## LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



## 29 EGUENA

• Arratsaldeko 4retatik 7,30ak arte, Iturrigorri frontoian **Gabonetako parkea**.

## 31 ZAPATUA

• Eskaparate lehiaketaren aukeraketa.

• Arratsaldeko 3,45etan, Almen Futbol Zelaian Preferente mailako **Aretxabaleta-Bergara partidua**.

• Arratsaldeko 6,30etan **Bizar-zuri**, Ortzadar taldearen laguntzarekin.

• Murrukixo M.E.ak antolatuta, **Haitzgorrira irteera** egongo da.

## 2 ASTELEHENA

• Arratsaldeko 2etatik 8etara, **Bilboki Pin-era**, Ortzadar taldearekin.

## 5 EGUENA

• Arratsaldeko 6,30etan **Errege kabalgata**, Ortzadar taldearen laguntzarekin.

## 12 EGUENA

• **Arans-Gi-ko Eskolak**, gorrerekin komunikazioa lantzeko, **Zeinuen hizkuntza ikastaroa** antolatu du. 30 orduko iraupena izango du eta arratsaldeko 6,30tik 8,30ra izango dira. Informazio gehiago 76 27 03 telefonon.

## ARETXAZOKA

### Lana

✓ Masailari diplomatuak bere zerbitzuak eskaintzen ditu. Lehenengo kontsulta dohainik izango da. Interesatuak deitu telefono honetara: 78 24 35 (Juan)

✓ Neska bat umeak zaintzeko edo enplegatu bezala lan egiteko prest dago. Harremanetarako telefona: 79 06 68 (Ana)

✓ 21 urteko neska euskalduna umeak zaintzeko edo zerbitzari bezala lan egiteko prest dago. Tfnoa: 79 87 40

### Etxebizitza

✓ Gasteizen ikasketak egiten eta gure ordutegiarekin bat datorren jendea bilatzen ari gara. Tfnoak: 76 55 70- 79 36 93.

✓ Erdi jantzitako solairua salgai dago San Miguel auzoan. Interesatuak deitu 79 76 72 telefonora.

✓ Bi ikasle, pisu txiki bat alokatzeko beharrean aurkitzen dira. Interesatuak deitu 79 91 28 telefonora (Susana). Asteguntan, 8retatik aurrera.

### Salerosketak

✓ Garaje bat salgai dago Andra Mari Zuri auzoan. Interesatuak deitu 79 68 35 telefonora.

✓ Eskoriatzan garajeak dauge salgai. Interesatuak telefono hauetara deitu dezakete:

79 16 05 (Kontxi)

79 43 73

71 47 27

71 41 51

71 47 14 (12.30etatik aurrera)



### III. MEKA MARRAZKI LEHIAKETA

"Nik, haundi egiten naizenean  
..... izan nahi dut"



Badakizu? Pentsa ezazu. 6 eta 14 urte bitartean badaukazu marraz ezazu Mekarentzat haundi egitean izan nahi duzuna: astronauta, idazle, ekologista, suhiltzailea,...; denak balio du. Margo-zorro eta liburu-sorta bikainak irabaz ditzakezu. Hartzazu parte!

Jaso itzazu marrazteko txartela eta oinarriak zure Meka Erakustokian. Zure marrazkia 1995eko urtarrilaren 5a baino lehenago entregatu behar duzu. Parte hartzeagatik, besterik gabe, zure Meka Banatzaileak plumier bat oparituko dizu koloretako arkatzekin. Zorte on, artista!



**Mekak urte-berri zoriontsua opa dizu**